



1.400 atletek parte hartu zuten.

CLUB ATLETICO RENTERIA

JOSE LUIS LAKUNZAREKIN ELKARRIZKETA

JOXAN ARBELAIZ

· Añabitarte baserriko zelaietan «Ume eta Haurtxoen mailako Gipuzkoako Kros Txapelketa» ikusi ahal izan nuen, duela lau hilabete, eta parte hartzaile kopuruarekin harriturik gelditu nintzela aitortu behar dut; danera 1.400ekoa bait zen. Antolaitzaileak zeintzu ziren galdetu nuenean Errenteriako Klub Atletikoa zela esan zidatzen.

Baina, oraindik bizi al da? Ez al zen desagertu?... Hauek nere gazte garaiko kontuak zirela uste nuen.

Erakunde honi buruz zerbait jakin nahiean, José Luis Lakuntza (C.A.R.eko lehendakaria) ekarri dugu gure orrialde-tara, argibide batzu eman diezagun.

—Elkarrizketa honi hasera emateko, galdera arrunta eta topikoa egingo dizut José Luis: noiz sortua da «Club Atlético Renteria»?

«Egia esan, aspaldikoa dugu. 1957. urtean sortzen da, Juanito Arregi lehendakaria delarik, eta Edolfo Leibar, Mikel Erriondo, Daniel Calleja, José Mari Lete... eta agian besteren batek direktiba osatzen dutela. Ondoren lehendakari desberdinak izan ditu: Inaxio Albisu, Mikel Mendarte, Kepa Jauregi, Pepe Gonzalez, eta azkenezko, ni neu. Eta beti, nola ez, Imanol Olaskoagaren laguntzarekin».

—Eta lanari nondik ekin zioten? Zein izan zen bere lehenengo aktibitatea?

«Lanean bi norantzetan jo zutela esan daiteke. Batetik, instalazioen hutsunea nabaria zen gure herrian, eta horregatik elkar lanean hartuta, Alkartasunako bazkideen laguntzarekin, "presa"-ko pista egin zuten, horretarako behar ziren orduak eta bi erabiliaz. Bestetik, noski, gazte jendea behar zen ekipoa osatu ahal izateko, eta asko izan ginen bertan parte hartu genuenak. Inongo harrokeriarik gabe, talde orekatua osatzen genuela uste dut, eta, norbait ahazteko arriskua badago ere, izenak ematen ausartuko nintzateke».

—Bota.

«Abiadura laisterketetan: Salaberria, Martinez, Rubio, Louvelli.

Iraupen erdiko laisterketetan: Agirreburualde, Diez, Irastorza, Maiz, Petrikorena, Asensio, Martinez.

Iraupen luzeko laisterketetan: Gonzalez, Berasain, Otaegi, Alzola, Iriarte, Sabando.

Jauzietan: Polo, Iglesias, Rubio, Baselga.

Jaurtiketetan: Garro, Polo, Iturburu.

Beti ere, norbait ahazteko beldur naiz. Horrela bada, barka diezadala».

—Baina nik zu ikusi zaizut atletismoa egiten. Espezialitateren bat landuko zenuen...

«Nik denetik lardaskatzen nuen, saltoak bereziki; baina pentatloi egiten nuela esan daiteka».

—Errenteriarrek berezian zona izan ohi dugu beti. Ba al zuen inongo berezitasunik Club Atletico Renteria-k?

«Bai, noski. Nesken atletismoa gurean sortu zen adibidez, eta pauso hori oso ausarta izan zen. Gaurtik begiratuta parregurea ematen du, baina jarri beharra daukazu garai hartako giroan. Atletismoak femineidatea galeratzen duela...e.a., badakizu ongi. Pentsa 1960. urteaz ari natzazula; hortik kontuak atera. Askok ez badakite ere, nesken atletismoak aurreko bere zilarrezko eztaiak betetzen ditu Gipuzkoan, eta horretan Errenteriak eman zituen lehenengo urratsak. Mari Carmen Martinez, Mari Carmen Estensoro, Itziar Otxoa, Baselga... e.a. izan genituen aurrendariak.

Hemen José Luis Jimenezen aipamen berezia egiteari bidezkoa deritzot, bera izan bait zen ideia horren eta beste askoren bultzatzaile nagusia. Bere zuzendaritzapean, goizeko seiretan "Presa-ko" pista joaten ginen, gero

lanera joan behar bagenuen ere. Eta ez pentsa noizbehin bakarrik egiten genuenik. Bi urte luzetan iraun genuen jarrera horretan».

—Baina atletismoa, gaur eguneko ikuspegitik begiratuta behintzat, zer bait marjinala da Erreneriako ekintza deportiboetan. Arrakastarik ba al zuen garai hartan?

«Hori lortu nahian buru belarri aritu ziren lehen aipatu direktiboak, eta urtero Erreneriako auzo desberdinen arteko atletismoko lehiaketa bat antolatzen zuten. Ikusi beharra zegoen zenbat jendeke parte hartzen zuen lehiaketa hauetan, eta zer nolako "pikeak" sortzen ziren auzo desberdinen artean. Oker ez banaiz, bost ekipo izaten ziren danera (Santa Clara, Ondartxo, Alfonso XI, Gaztaño eta Maria de Lezo). Oso bide egokia erabili zen, nere ustetan, zuk diozun arrakasta hori lortzeko. Benetan.

Kontuak atera, Ereintzak, eskubaloia indartu nahi izan zuenean, metodo berdina erabili zuela, eta fruituak begien bistan daude.

Bestetik, esan beharra daukat, mugimendu guzti hau ez zela gure herrian bakarrik eman, bailara guztian baizik. Hori dela eta, inguruko beste ekipo atletikoekin elkaturik sortu zen Ibaiondo.

Ibaiondo bost klub desberdinek ostzen genuen: S.C.R.D. Lartaun (Oartzun), C. D. Pasajes (Pasai Antxo), S.C.R. Donibane (Pasai Donibane), Agrupación Cultural (Trinxerpe) eta C. A. Renteria (Erreneria). Horrela elkaturik, Gipuzkoako ekipo handien aurka (Real Sociedad, Atlético San Sebastián eta Tolosa C. F.), aritzen ginen».

—Aipatzen dizkidazunak oso interesgarriak dira; baina eta emaitza aldetik, nolakoa zen Club Atletico Renteria maila? Lorpen handiak burutu al zituen ala erdipurdikoa izan zen?

«Gipuzkoa mailan lehenetarikoa izatera iritsi zela esaten badizut, ez uste gezurretan nabilenik. Adibidez, 1958. urtean Gipuzkoako txapeldunak izan ginen gazteen mailan. Eta garai hartarako Erreneriako Rekordak ez ziren txantxetakoak...».

—Bapaten isiltzen da. Bere paperen artean behin eta berriro begiratzen du. Azkenik kartera handi bat miatu ondoren, Ibaiondo izeneko aldiakari txiki bat handik ateraez, hizketan jarraitzen du, azkenaldeko orrialdea irekitzen duen bitartean.

«Begara. Hemen daukazu. Hauek dira 1961. go azaroan zaintzu ziren Erreneriako rekordak. Badakit gaurko ikuspegiak lotsagarriak gerta dakizkizukeela zenbait kasutan. Baina duela hogeitalau urte, ez pentsa... Ez zen horrela... Benetan marka onak ziren batzuk.

Gainera. Hau da beste bat, eta esan behar nizun. Orain Erreneriako atletek zer marka dituzten ez dakigu, eta taula hau gaurkotu nahiko genuke. Atletismoan dihardutenei ekar diezazkigutela erregua egiten diegu elkarrizketa honetik».

—Zer nolako jarraipena izan du Club Atletikoak urte luze hauetan?

«Egia esan, lehenengo garai hori 1966. urtean bukatu zen. Soldaduskatik etorri ginenean, ez genuen indar eta ilusio nahikoa izan atletismoarekin jarraitzeko eta pixkanaka itzaltzen joan zen Club Atletico Renteria. Juan Mari Petrikorena, Antonio Diez eta José Miguel Louvelik bakarrik jarraitu zuten, eta gezurra badirudi ere, gure herriarentzat garaipen handiak lortuaz. Oraindik, eta pentsa zenbat urte pasa diren, Louvelik Gipuzkoako rekorda du 400 metro hasietan».

—Eta egungo errealitatea nolakoa da? Nolatan berpiztu duzue Club Atletico Renteria? Nondik hasi zarete lan honetan eta zeintzuk?

«Duela lau urte hasi ginen lan honetan. Gure herrian itsatsita dagoen droga eta abarreko giro bereziaren aurrean zer bait egin beharrezan aurkitu ginen, eta atletismoaren bidetik aritzea egokitzat jo genuen. Hasera guztietan bezala jende gutxi elkartu ginen: Joxe Otaegi, José Luis Cabaleiro, Antonio Diez, Xabin Irastorza, Imanol Olaskoaga eta ni.

Orain dela 28 urte bezala, instalazioen eza izan zen gure lehenengo hutsunea. Lehen egindakoak deseginak zeudelako. Ez pista, eta ez aldalekurik ez genuela, 30 gazteekin



Norbait ahazteko arriskua badago ere, izenak ematen ausartuko nintzateke.

hasi ginen, galtzara nagusian eta Gabierrotan egirik entrenamenduak. Lehengo pista eta aldaleku zaharrak konpondu nahirik, Udalara jo genuen laguntzaren eske, baina hitzak besterik ez genuen jaso eta berriro ere, direktiboak elkar lanean hartuta larunbatak eta igandeak erabiliaz haitzurrez eta palaz konpondu behar izan genuen.

Argi dagoena zera da, gogorretik hartzen ez bada, ez dela ezer lortzen erakunde horietatik».

—Haserrea nabari zaio hau esaten duenean, eta behin eta berriro bere esanetatik hitzik ez aldatzeko eskatzen dit. Bere nahia beteko dudala aginduz, aurrera jotzen dugu.

Zein da egungo errealitatea? Zer adineko atletekin aritzen zarete? Ikastetxeekin harremanik ba al duzue?

«Ditugun helburuekin, garbi ikusi dugu gaztetxoekin aritzea dela guretzat garrantzitsuena eta horregatik hortik abiatu gara gure lanean. Une honetan hirurogeitamar atleta ditugu, eta kros eta pistako txapelketa osoa egiten dugu beraiekin. Oraingoz gure asmoa kopurua hedatzea da, eta horretarako harremanetan gaude zenbait ikastetxerekin, bereziki Olereta ikastola, S. Luis Gonzaga, Iztieta, eta Hijas de la Cruzekoekin».

ERRENERIAKO REKORDAK

PROGAK	GAZTEAK	JUNIOR	SENIOR
Hirukoitzea	12.46 José Luis Lacunza Renteria 24-IX-61	12.4 Severino Iglesia Renteria 24-IX-61	10.35 Agustín Martínez Renteria 24-IX-61
Pertika	2.50 José Luis Lacunza Renteria 12-X-61	1.90 Cesar Gonzalez Koxtape 20-IX-59	
Txabalina	35.75 Juan Bautista Garro Anoeta 11-X-59	41.46 Juan Bta. Garro, Anoeta 22-X-61	
Diskoa	32.82 Ignacio Oliveri Koxtape 5-V-60	29.99 Ignacio Oliveri Renteria 9-IX-61	
Pisua	11.34 Carlos Martínez Renteria 12-X-60	10.67 Ignacio Oliveri Renteria 17-IX-61	9.52 Mikel Mendarte Koxtape 17-IV-60
Barra	19.92 Manuel Iturburu Anoeta 27-IX-59	2.73 José Angel Areta Anoeta 21-IX-59	
Mailua	27.82 Carlos Martínez Anoeta 9-X-60	17.74 José María López Anoeta 11-X-59	
4x60 m.	Araneta Barinaga } 34"1 Ochoa } C.A.R. Renteria Lacunza } 5-XI-61		
4x100 m.	Rubio Lacunza } 49"8 Diez } C.A.R. Anoeta Martínez } 26-VI-60	Iglesia } 50"5 Gonzalez } C.A.R. Anoeta Areta } 25-IX-60	Olaechea } 52"2 Oizeta } C.A.R. Albizu } Anoeta Suverviola } 28-IX-58
4x250 m.	Garro } 2'28"4 Otaegi } C.A.R. Renteria Beasain } 1-V-59 Iglesia } 1-V-59	Rubio } 2'26"2 Iglesia } C.A.R. Renteria Diez } 24-IX-61 Garro } 24-IX-61	Martínez } 2'29"8 Mendivil } C.A.R. Irastorza } Renteria Itarguren } 24-IX-61
4x400 m.	Beasain } 4'1"8 Insausti } C.A.R. Anoeta Garro } 27-IX-59 Iglesia } 27-IX-59	Garro } 3'54"8 Iglesia } C.A.R. Anoeta Sabando } 1-VI-61 Alzola } 1-VI-61	

ERRENTERIAKO REKORDAK - 1961

FROGAK	GAZTEAK	JUNIOR	SENIOR
60 m.	8 ^o 1 José Luis Lacunza Koxtape 17-IV-60		
80 m.	10 ^o 2 Juan José Rubio Koxtape 1-V-60	11 ^o Severino Iglesia Koxtape 1-V-60	10 ^o 3 Bautista Navarro Koxtape 1-V-60
100 m.	12 ^o 1 Juan José Rubio Anoeta 1-VI-61	12 ^o 3 Antonio Díez Anoeta 26-VIII-61	11 ^o 9 Bautista Navarro Berazubi
150 m.	18 ^o 2 Juan José Rubio Anoeta 1-V-60		
200 m.	25 ^o 6 Juan José Rubio Anoeta 18-VII-61	25 ^o 1 Antonín Díez Anoeta 12-X-61	25 ^o 6 Bautista Navarro Berazubi 29-V-60
300 m.	16 ^o 3 José Luis Lacunza Rentería 18-VI-60	42 ^o 3 Juan A. Crespo Anoeta 3-VII-61	
400 m.	57 ^o 7 Antonio Díez Anoeta 16-VI-60	54 ^o 9 José Ángel Areta Anoeta 25-IX-60	
600 m.	2 ^o 7 ^o 5 Gregorio Beasain Anoeta 24-IV-60	2 ^o 6 ^o 6 José Luis Alzola Anoeta 29-X-61	
1.000 m.	2 ^o 50 ^o 5 Juan Bautista Garro Anoeta 19-IV-59	3 ^o 11 ^o 2 Manuel Marqués Rentería 21-IX-58	
1.500 m.	4 ^o 25 ^o 1 Juan Bautista Garro Anoeta 31-V-59	4 ^o 28 ^o 5 José Otaegui Anoeta 10-IX-61	6 ^o 56 ^o 3 Juan Mendarte Rentería 2-IV-60
3.000 m.	9 ^o 47 ^o 4 Juan Bautista Garro Anoeta 5-IV-59	9 ^o 51 ^o José Luis Alzola Berazubi 14-V-61	
5.000 m.	16 ^o 18 ^o José Otaegui Anoeta 26-IV-59		
80 m. h.	14 ^o J. L. Lacunza (0.914) Rentería 24-IX-61	15 ^o 4 J. A. Areta (1.067) Rentería 24-IX-61	
110 m. h.	19 ^o 1 Severino Iglesia Anoeta 1-V-59	20 ^o 3 J. L. Lacunza (1.067) Berazubi 30-VII-61	
400 m. h.	1 ^o 6 ^o 1 Antonio Díez Anoeta 2h-VI-60	1 ^o 3 ^o 7 José Ángel Areta Berazubi 29-V-60	
1.500 m. n.		4 ^o 58 ^o 8 José Otaegui Anoeta 14-V-61	
3.000 m. n.		10 ^o 47 ^o José Otaegui Anoeta 1-XI-61	
Altuara	1,62 José L. Lacunza Rentería 5-XI-61	1,65 Severino Iglesia Berazubi 5-VI-60	1,40 Jose Seguroia Rentería 17-IX-61
Luzera	5,79 Juan José Rubio Rentería 17-IX-61	6,10 Severino Iglesia Rentería 17-IX-61	5,74 A. Suverriola Rentería 21-IX-58

—Ikusten dudanez, ikastetxe pribatuak dira horiek denak. Zailtasunak al dituzue ikastetxe publikoekin ala?

«Orain arte, egia esan, nahiko zaila gertatu zaigu. Baina jakingo duzunez, amaitu berria da Errenteriako Eskolar Koordinadorak eratutako Olimpiada, eta bertan aritu izan gara, atletismoko kronometrajea, antolaketa eta klasifikapen lanak egiten. Lan honen bitartez hurbildu gatzazkie eskola publikoei, eta hemendik aurrera errazago gertatuko zaigulakoan gaude.

Baina antolaketa honek lan handiak eman dizkigu, ez pentsa; 1.300 haur izan bait dira parte hartu dutenak. Hortatik aparte, pistaren antolaketa eta konpoketa; eta gainera gure esku hutsez aritu izan gara. Olimpiada honetatik ateratzen direnekin lanean aritzea da gure asmoa, eta lehenengo urratsa emanak daude asmo honetan».

—Izugarria ez al da era horretako antolaketa bat aurrera eramatea? Nolabaiteko esperientzia beharko da benetako frakasoa gerta ez dadin...

«Bai noski, baina azkeneko urte honetan, antzeko esperientziak izan ditugu beste bitan, eta ikasi ere ikasten da. Urriari, KILOMETROAK 84 hela eta, atletismoko frogan antolaketa gure esku gelditu zen, eta Anoetako pistan 900 ikaslek parte hartu bazuen, Errenterian antolatu zen kros lehiaketan 1.200ekoa izan zen kopurua.

Martxoan berriz, «ume eta haurtxoen mailako Gipuzkoako kros txapelketa» antolatu genuen eta gaztetxoaren promoziorako bi laisterketa. Honetan ere 1.400 atletek parte hartu zuten».

—Egindakoaz hitzegiten duenean, harro dagoela nabaritzen zaio, daina horretarako arrazoiak dituela eta bidezkoa dela iruditzen zait. Egitura teknikoaz eta entrenadoreaz galdetzen diodanean, bere amatsetatik jeisten da eta berehala erantzuten dit.

«Herrian entrenadore bat daukagu. José Luis Cabaleirok atera zuen horretarako behar zen titulazioa, «Monitor Nacional de Atletismo», eta astean hirutan atleta guztiak entrenatzen ditu gure pista kaxkarrean; eta norbaitek destakutzen badu Donostiara bidaltzen dugu, Manolo Claverorengana. Eta iadanik, badugu Euskadiko txapeldun bat, Kiko Sainz, lareun metroan gazteen mailan. Dena den, eta baldin eta instalazioak egokitu balira, Clavero bera prestu legoke gure herrira etortzeko entrenatzera.

Asmo honetan Udalarekin harremanetan gaude, lokalen bat aldalekuetarako egokitzeko».

—Azkenik José Luis, beste zerresanik ba al duzu? Nik uste benetako hitzaspertua izan dela gurea.

«Bukatzeke eskerrak eman nahi nizkioke Errenteriako jendeari, eman digun laguntzarengatik, eta Donostiako Aurrezki Kutxa Muzizipalari eratu ditugun ekintza guztiak babestu dizkigulako.

Eta nola ez, laguntza gehiagoren beharrean gaudela oraindik, esan nahi nuke. Egun, 260 bazkide bakarrik ditugu, bakoitzak 300 pezeta ordaintzen dituela urtero. Ondo ibiltzeko 1.000 bazkide beharko lirateke. Baina urrutiko gaude».

Beste gauza asko esan zizkigun José Luisek, baina bukatu beharrean gaude eta lerro hauetatik kanpo gelditzen dira. Dena den, jakin ezazu José Luis, gure herriko gaztediaren alde egiten diren lanek beti izango dutela lekua gure urtekari honetan. Eskerrikasko.